

Zaruztarron Azterna Ekologikoa

LEHEN HEZKUNTZAKO 3. ZIKLOA



Zenbat lur behar dugu zaruztarrok gure bizimodua mantentzeko?

Kontsumitzen ditugun produktu guztiak ekoizteko 6 lur mota ezberdin behar ditugu:



Erabiltzen dugun lur zatia eta gure planetan erabilgarri dagoen lur azalera alderatuz, gure bizimodua jasangarria den ala ez jakin dezakegu.



*Unitatea: ha/cap (hektarea/capita), hektarea kopurua biztanle bakoitzeko.

Ondorioz, zaruztar bakoitzak dagokiona baino lur gehiago erabiltzen ari da?


BAI EZ

Zenbat planeta beharko genituzke munduko biztanle guztiak zaruztarron kontsumo maila izango balute?



Planeta bakarra dugunez, neurritz gaineko kontsumoa beste batzuen kontsumo urriarekin orekatzen da:

AZTARNA EKOLOGIKOA	ZARAUZ	CONGO	BATURA	ha
AZALERA ERABILGARRIA			BATURA	ha



Planeta dugun etxe bakarra da... izan gaitezen astronautak!!


Astronautak ahal den neurrian baliabideen kontsumoa murrizten du, hondakinak berrerabiltzen ditu, energia berriztagarriak erabiltzen ditu... eta aztarna ekologikoak astronautaren antzeko jarreretara hurbildu behar dugula ulertarazten digu. Prest?

Eta guk, zer egin dezakegu?

Bide guztiak pausu bakar batekin hasten dira! Aholku hauek arretaz irakurri eta datozen egunotan horietako bat martxan jarri ezazu!!

ELIKADURA

- Bertako eta garaiko elikagaiak kontsumitu!
- Jaten duzunaren erdia baino gehiago barazkia izan dadin, eta erdia baino gutxiago okela!
- Monotoniarekin hautsi: janari ezberdinak probatu!
- Aurrez prestaturiko janaria saihestu: janaria prestatzeko, dastatzeko eta gozatzeko denbora hartu!



Bururatzen zaizun bestelako aholkua idatzi hemen:

MUGIKORTASUNA

- Bidai laburretan, oinez edo bizikletaz ibili!
- Bidai ertain edo luzeetan garraio publikoaren erabilera indartu.
- Oporrak egiteko orduan ere, garraiobide jasangarriak aukeratu.



Bururatzen zaizun bestelako aholkua idatzi hemen:

ETXEBIZITZA

- Hondakinak murrizteko irtenbideak aztertu...
- Ura neurrian erabili...
- Kontsumo txikiko bonbilak aukeratu...



Bururatzen zaizun bestelako aholkua idatzi hemen:

KONTSUMOA

- Erosi aurretik, zure beharrak aztertu.
- Erabili eta bota egiten diren produktuak saihestu.
- Erosketak egiteko orduan, eraman zure poltsa!



Bururatzen zaizun bestelako aholkua idatzi hemen: